



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko otsailaren 28a

38. ZK.

### A U R K I B I D E A

F SAILA:

**Galderak:**

- Galdera, adin txikikoen autonomiarako programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitalegunean hutsik dauden espazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuak autokontzertazioetan egindako gastuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroan organo-transplante bat jasotzeko dagoen itxaron-zerrendari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, irakasleen lekualdaketa-lehiaketarako ematen diren inprimakiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, haurrentzako musika-hezkuntzako programa bertan behera uzteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Ebro ibaiaren eskuineko ibai-bazterreko herrietako langabeziari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Erriberako ureztatzaile elkarteei egindako inkesten emaitza ezagutu ondoren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak ateratako ondorioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseari ekite aldera Nafarroako Gobernuak Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin izandako kontaktuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen aitzinean iragarri zituen aukerak direla-eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak darabiltzan epeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako Departamentuak inolako txostenik edo analisirik darabilen Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzeko hasierako aurreikuspenen aitzineko aukerei buruz. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, jakiteko ea Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak inolako informaziorik jaso duen ureztatzaile elkarte edo sindikatuen, toki entitateen, elkarten edo lehen sektoreko kolektiboen aldetik, Nafarroako Erriberan nekazaritza edo abeltzaintza erabilerarako ura bermatzeko beharrari buruz. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

- Galdera, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak lurzati-berrantolamendua dela-eta hurrengo urteotan egingen dituen jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako Departamentuak enpresen, toki entitateen, elkarteen edo enpresaburuen aldetik inolako informaziorik edo eskaerarik jaso duen Nafarroako Erriberan industria-erabilerarako ura bermatzeko beharrari buruz. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egin eta gero bertako ura jaso behar zuten herrietako uraren kalitatea dela-eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak eta Toki Administrazioiko Departamentuak Osasun Departamentuarekin izandako kontaktuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, jakiteko ea Osasun Departamentuak gorabeherarik detektatu duen, legegintzaldia hasi zenez geroztik, Nafarroako ubidearen bigarren fasea eraikitzen denean bertako ura jaso behar duten herrietako edateko uraren kalitatean. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Geocalci S.L.k sustatutako Muga meategiaren proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, edari azukredunen produkzioa zegapetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, telefonia mugikorrek Nafarroan duen estaldurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Elerebro S.A.k kudeatzen duen Castejongo zentral termikoaren bigarren multzoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Benjamín de Tudela instituturara joaten diren ikasleen garraio-zerbitzuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Legearen garapen planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Castejonen hilda aurkitutako pertsonari buruzko ikerketa Guardia Zibilari bideratzeko arrazoiei buruzkoa. Galdera erretiratzea (31. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, adin txikikoen autonomiarako programari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, adin - txikikoen autonomiarako programari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 25eko 140. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako foru parlamentari Mónica Doménech Linde andreak galdera egin du adingabeen autonomiarako programari buruz (9-16/PES-00390). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako Departamentuak informatzeko duena:

Hasierako gaiak:

Programa honen helburua da nerabeei (16 urtetik aurrera) akonpainamendu sozialaren bidezko laguntza ematea, edozein dela ere haien jatorria eta bizimodu independente baterako bidean, egoitza-harrerako baliabidetik irteteen familia-nukleo batean integratzea aurreikusten ez den kasuetan, bizimodu autonomo arruntaren antzeko

edo hartatik hurbil dagoen bat emanez; bizimodu horrek autogestio araubidean funtziona dezake, eta hezkuntzaren, prestakuntzaren edo lanerako orientazioaren eta laneratzearen ikuspegia izanen du, bizitza sozialean eta lanekoan egiazki integrazeari begira.

Egoitza-harrerako baliabideen gainbegiratzearen eta jarraipenaren bitartez lortutako esperientziak agerian uzten digu espazio desberdinak sortzeko beharra, haien bitartez bizimodu autonomo osora bideratutako gaitasunak eta ezagutzak eskuratzeko; horrek aukera ematen du ohiko egoitza-inguruneetan garatzen joandako trebetasunen eta gaitasunen ikaskuntzei jarraipena emateko; bestalde, inguruabar jakin batzuetan hori guztia finkatu beharra dago, bizitza autonomorako programa zehatz bat abian jarritz, zeinak aldi berean erraztuko eta ahalbidetuko baitu babesa emandako erakundetik emantzipatzea.

Ikuspegi horretatik diseinatzen da ingurune irekiko akonpainamendu-programa, gazte finalistentzat eta autonomia-prozesuan daudenentzat, eta bereizgarri du ez direla egoitza-harrerako zirkuitu konbentzionalera biltzen.

(1) "Adingabeen autonomiarako programari dagokionez: Zenbat adingabe sartu dira programa horretan? Zer datu daukazue? Zein izan da autonomia daukaten adingabeen bilakaera 2014an, 2015ean eta 2016ko orain arteko denboran?"

---

### **Bizimodu autonomorako prestatzeko programan dauden adingabeak**

---

<u>Urtea</u>	<u>Sartu diren kasuak</u>	<u>Artatu diren kasuak</u>
2014	21	40
2015	19	45
2016	18	43

---

(2) Zenbatekoa da adingabeen batez besteko egonaldia behaketa- eta harrera-zentroetan?

Behaketa- eta harrera-zentroan egonaldian dauden adingabeak 21 dira batez beste; egonaldien iraupena oso aldakorra da, larritasun-mailaren, babesgabetasun egoeraren, ihes egiten saiatu izanaren, balioespen-prozesuan dagoen familia egituraren parte hartzearen arabera...

(3) Emanen al dizkiguzu Lehiaketan dauden tokien kopurua Nafarroako adingabeen beharriari egokitzeari buruzko txostenaren justifikazioa, datuak eta ondorioak?

### 3.1. Aurrekariak.

1.- Familiaren Zuzendaritza Nagusiak 2005eko apirilaren 15ean itun bat sinatu zuen Ilundain Haritz Berri Fundazioarekin, zailtasun edo gatazka sozialean dauden adingabeentzako barnetegi araubideko 20 toki erreserbatu eta betetzeko.

2.- Aurreikusitako zen kontratuak 10 urteko iraupena izatea; horrenbestez, 2015eko apirilean amaitu zen haren indarraldia. Kontratuak hasi zenetik, zenbait luzapen eta aldaketa izan zituen; honako hauek izan ziren:

a) Lehenbizi, hasierako kontratuak bi kontratutan banatu zen: bata, behaketa- eta -harrera zentroetako eta babeseko tokien kudeaketarekin, eta bestea erreformako tokien kudeaketarekin.

b) Bigarrenik, toki kopurua handitu da: behaketa- eta harrera-zentroetakoak 5 izatetik 15 izatera pasa dira, eta bi kokapen dituzte: 5 Zolian eta 10 Beloson; babesekoak, berriz, 5etik 10era pasa dira.

c) Erreformako tokien kudeaketa, gaur egun, beste entitate bati dagokio, ez Ilundain Fundazioari, kasuko lehiaketa publikoa egin ondoren.

3.- Babesgabetasun egoera larrian dauden adingabeen egoitza-harrera, bai eta gatazka sozialeko egoeran dauden adingabeen behaketa eta balioestea, legez Nafarroako Foru Komunitateari eskatutako babes-neurriak dira, zeinak, gainera, Gizarte Zerbitzuen Zorroko prestazio bermatu gisa egituratuta baitaude.

4.- 2015eko apiriletik, aberaste bidegabeko egoeran suertatu gara, zeren eta Ilundain Fundazioak zerbitzu bat ematen jarraitzen baitu horretarako izenpetutako kontraturik eduki gabe.

### 3.2. Beste kontratu bat egiteko proposamena.

Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzak beste kontratu bat lizitatzeko asmoa du, non egungo beharriari, bai tokiena, bai adingabeen profilenak, jasoko baitira.

3.2.a) Behaketa- eta harrera-zentroari dagokionez.

Beste gogoeta batzuk ezertan kendu gabe, eta behaketa- eta harrera-zentroaren egoeran zentratuz, gaur egun honako hau aurkitzen dugu:

a) Behaketa- eta harrera-zentroak azken urteetan izan duen okupazioa aztertuta, etengabe eta modu jarraituan gehiegizko okupazioa duela ikusten dugu.

b) Gehiegizko okupazioak goraldi oso altuak izan ditu espazio fisiko jakin batean (Beloso), zeina hasiera batean 10 adingaberentzat baitzen; normalean, ordea, 20 nerabe inguru egoten dira.

c) Halaber, maiz gertatzen ari da jokabidearen ikuspuntutik edo profil disruptiboagoa edo patologia psikiatriko bat duten adingabeak bizikidetzarako orokorraren egoera nahasten ari direla, eta horrenkin profil "ahulagoak" dituzten beste adingabe batzuen prozesu pertsonalaren egoera nahasten dela, zeren eta tokiak edo/eta espazioak modu gutxi-asko jarraituan partekatzen baitituzte.

b) Bestalde, gehiegizko okupazio horrek maiz eragiten du jokabide disruptiboagoa izatearen ikuspuntutik elkarren artean antz handiagoa izaten duten adingabeen jokabide-nahastedun egoerak gertatzea; bada, egoera horiek indartzen dira eta elkar elikatzen dute gehiegizko okupazioa dela eta.

e) Horrenbestez, gehiegizko okupazioak batek ezinezko egiten du espazio gutxi-asko bereizitako lan egitea, non kasu bakoitzaren abordatze berariazkoagoa egin zitekeen; bestetik, eragiten du neurri batean desitxuraturik geratzea behaketa- eta harrera-zentroaren eginkizun nagusia, zeina izanen bailitzateke adingabea psikologikoki eta jokabidearen ikuspuntutik egonkortzea, kasu bakoitzaren balioespen-prozesu bat egin ahal izateko.

### 3.2.b) Babeserako tokiei dagokienez.

Errealitateak erakusten digu babeseko eta gatazka sozialeko egoeran dauden eta profil bereziak dituzten nerabeen kopuruak pixkanaka gora egin duela; horietako askok jokabide-arazoak edo arazo psikiatrikoak dituzte. Horrek nahitaezko egiten du adingabeen tipologia zehatz horretarako egoitza-tokien kopurua handitzea. Halaber, berriki onetsi diren uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak eta uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoak –biek ere Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/96 Lege Organikoa aldatzen dute eta, horrenbestez, haurren eta nerabeen egungo babes-sistema arautzen dute– aldaketa handiak dakartzate jokabide-arazoak dituzten adingabeen tratamen-

dua dela eta. Horrek eragiten du zaintzan edo tutoretzan dauden eta jokabide-nahasteak diagnostikatuta dituzten adingabeen arretarako gaitasuna duten egoitza-programen ezarpena aldatzea, baldin eta behin eta berriz jokabide disruptibo edo disozialak badituzte, arau sozialak eta gainerakoen oinarritzko eskubideak urratzen dituztenak, haiek babesteko beharriaz hori justifikatzen dutenean. Legearen edukiarekin bat, zentro horiek adingabe bakoitzaren banakako tratamendua bermatzeko toki kopuru egokia edukiko dute. Zentro horietako egoitza-harrerak xede izanen du adingabeari berritik hezteko, jokabidea normalizatzeko eta nortasunaren garapen libre eta harmonikoa lortzeko esparru egokia ematea, testuinguru egituratu batean eta berariazko programen bitartez, bestelako babes-neurrien bitartez esku hartzerik ez dagoen kasuetan.

3.3. Egoeraren azterketa eta konponbide proposamena.

Ikus daitekeen bezala, aspalditik gehiegizko okupazioko egoera iraunkor eta egiturazkoa dago –ez abagunekoa edo une jakin batekoa– babeserako egoitzen esparru osoan, eta egoera horrek zuzenean eragiten du gatazka sozialeko eta babesgabetasuneko egoeran dauden adingabeengan.

Gaur egun indarrean den kontratuaren xedek bi programa berezitu dauzka: batetik, babesgabetasun egoera larrian dauden adingabeen egoitza-harrera, zeina 10 toki dauzkan egoitza-harrerako zentro batean ematen baita; bestetik, gatazka sozialeko egoeran dauden adingabeen behaketa eta balorazioa, zeina bi tokitan ematen baita: lehen, 5 neraberengain zaintzaren kudeaketaren bitartez, eta bigarrena, berriz, 10 neraberengain zaintzaren kudeaketaren bitartez. Guztiak ere gatazka sozialeko egoeran daude.

Gaur egun egoitza-harrerako sisteman ezartzen joan diren konponbideek ezin izan dute konpondu ez Beloso Alto behaketa- eta harrera-zentroan antzemandako gehiegizko okupazioko egoera, ez eta gazteentzako babeserako egoitzetako toki kopuruaren eskasiak sortutako larritasunezko uneak. Era berean, badirudi egoitza-sistema berritik berrantolatze beharra dagoela, halako moduz non moduan egonen baita erantzuna emateko arretaren xede diren adingabeen profil psikosozialen konplexutasun eta heterogeneotasun gero eta handiagoi.

Horri dagokionez, eta babeserako egungo egoitza-sistemaren eraginkortasun- eta efizientzia-maila hobetzeko, honako proposamen hau egiten dugu:

1. Behaketa- eta harrera-zentroetan balorazioa egiteko 18 toki misto, krisi egoeran dauden eta erreferentziako familia-bizitokian gehiago irauterik ez duten adingabeen balorazio psikosozial sakona egiteko. Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetza honetako bulegoen ekimenez harrera- eta behaketa-zentroetan sartzen diren adingabeak, oinarritzko osasun laguntzako haurtzaroko lantaldeek egindako deribazio-txostenaren bitartez, bai eta kontrol-erakundeek ekimenez sartzen direnak ere. Arretaren xede diren adingabeen heterogeneotasun-maila altua dela eta, harrera- eta behaketa-zentroaren egitura hiru modulu bananduren arabera antolatuko da, esku-hartzearen ezaugarri psikosozialen, bizi-ibilbidearen, jokabide-tipologiaren edo/eta esku-hartzea eragin duen arrazoiaren arabera.

2. Oinarritzko egoitza-harrerarako (OEH) 18 toki misto, zaintza edo tutoretza egoeran dauden adingabeen egoitza-araubideari harrera emateari zuzenduak, adingabe horien jokabide-profilaren ezaugarri disozial edo disruptiboek egoitza-baliabideko bizikidetzaren oinarritzko esparrua inolaz ere arriskuan jarriko ez duten kasuetarako.

3. Egoitza harrera espezializatuko (EHE) 18 toki misto. Denboran zehar ezaugarri larriki disozial edo disruptiboak modu jarraian izan dituzten adingabeen jokabide-profilerako, bizikidetzaren oinarritzko esparrua arrisku larrian jartzearaino iritsi den kasuetarako. Arreta psikologiko eta hezkuntzako trinko eta oso banakatuak eta gainbegiratze jarraitua behar duten adingabeak dira. Era berean, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/96 Lege Organikoaren aldaketan arabera, jokabide-arazo larriak dituzten adingabeak dira, eta beharra izanez gero, haiekin legeak araututako euspen-neurriak erabil daitezke.

4. Bizimodu autonomorako prestatzeko prozesuan dauden adingabeentzako akonpainamendu sozialeko 10 toki misto.

Aurreikusita dago kontratua 2017ko otsailaren 1ean hastea edo, data horren ondoren egindakoa bada, kontratua egin eta biharamunean, eta 2017ko abenduaren 31n amaituko da. Urtez urte luzatu ahalko da bi aldeak ados badaude. Kontratuaren betetze egokia maiztasun batez aztertu beharko da, klausula tekniko eta administratiboetan ezarritakoaren arabera. Kontratuaren gehiengo iraupena, berriz, balizko luzapenak barne, lau urtekoa izanen da. (Gaur egun, lizitazio prozesuan amaitu da kontratazio-atarian iragarpena egiteko fasea, eta aurkeztutako proposamenak balioesteko eta horretarako ezarritako kontratazio-mahaiak esleipena egiteko fasean gaude).

(4) Zenbat instalazio aldatu dira eta zer zentrotan egin dira instalazio berri horiek edo lehendik zeudenen egokitzapenak uztailaren 28ko 26/2015 Legean xedatutakora egokitzeko?

Gaur egun, Nafarroan haurren babeserako sistemak hiru zentro dauzka, eta haien instalazioak uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoan jasota dagoen egungo araudiaren arabera egokitu dira. Honako hauek dira:

Entitatea/zentroa	Egoitza Harrera Espezializatuko tokiak (EHE)
Ilundain Haritz Berri fundazioa	8 toki (misto) berri
Navarra Sin Fronteras elkarte	5 toki (misto) Gurimendi egoitzan
Xilema Fundazioa	5 toki (mistoak) Ermitagañako babes-pisu batean

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko abenduaren 20an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

## **Galdera, Nafarroako Ospitalegunean hutsik dauden espazioei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ospitalegunean hutsik dauden espazioei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 25eko 140. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00391). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren informazioa:

Zein espazio daude hutsik gaur egun Nafarroako Ospitalegunean? Osasun Departamentuak zer aurreikuspen darabil horien erabilerari dagokionez?

Honako hauek dira Nafarroako Ospitalegunean baliagarri dauden espazioak:

1. Bideko Ama Birjina Ospitaleko antzinako larrialdiak
2. Bideko Ama Birjina Ospitaleko hematologia-laborategia
3. Larrialdietako eraikina
4. Nafarroako Ospitaleko Kirurgia Anbulatorio Larria
5. Bideko Ama Birjina Ospitaleko antzinako ZIUa
6. Nafarroako Ospitaleko antzinako gimnasioa
7. L Pabiloia

Antolamendu Planean eta plan funtzionaletan zer erabilerara ematen zaie?

Honako hau da Nafarroako Ospitaleguneko espazio hutsak erabiltzeko aurreikuspena:



### 1. Bideko Ama Birjina Ospitaleko antzinako larrialdiak

Barne Medikuntzaren Zerbitzuaren batasun fisikoari ekiteko eta gaixo kroniko pluripatologikoen programaren hedatzea hartuko du espazio horrek; une honetan, horrelako gaixoak artatzen dituen Eguneko Ospitalerako espazioak zabaldu behar dira, eta horretarako aurreikusi da antzinako Bideko Ama Birjina Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuaren antzinako lokalak erabiltzea.

Halaber, Geriatriako eta Barne Medikuntzako kontsultak egoitza horietatik hurbil dauden beste lokal batzuetara eramanez dira.

Horretarako, behar den plan funtzionala lantzen ari gara.

### 2. Bideko Ama Birjina Ospitaleko Hematologia-laborategia

Aurten, igoera handia gertatu da etxeko ospitalizaziora bideratutako baliabideetan, eta 2017an igoerari eutsiko zaio. Hori dela eta, programa horretarako erabiltzen diren espazioak zabaldu edo egokitu behar dira. Helburu hori dela eta, plan funtzional bat egiten ari gara, haiek Bideko Ama Birjina Ospitaleko Hematologiako laborategian kokatzeko.

### 3. Larrialdietako eraikina

Nafarroako Ospitaleguneko larrialdietako egungo eraikinean bi solairu eta erdi hutsik daude. Ireki zenetik dago egoera horretan.

Eraikin isolatua denez eta kanpoko gaixoen zirkulaziorako zirkuitu egokiak dituen, asmoa dago honako hauetarako erabiltzeko:

a) Lehenengo solairuan hutsik dagoen espazioa errespetatzea, Larrialdi Zerbitzuan sor litezkeen behar berrietarako.

b) Goiko solairuetan, Alergologia Zerbitzuari lehentasuna emateko asmoa dugu, egungo Conde Olivetoko kokapenean dauzkan gabezia operatibo handiak direla eta. Horretarako, aipatutako zerbitzuko arduradunekin kasuko plan funtzionala has-teko puntuan gaude.

c) Bestalde, geroko epeetan, aurreikusita dago Nafarroako Ospitaleguneko eguneko ospitale poli-

balentea bertan kokatzeko aukera aztertzea, beren zorroan laguntza mota hori ematen duten zerbitzu klinikoek jarduerak hartzeko.

### 4. Nafarroako Ospitaleko Kirurgia Anbulatorio Larria

Proposatzen da Nafarroako Ospitaleko Kirurgia Anbulatorio Larria une honetan erabiltzen ez den toki batera eramatea, C pabiloiko egungo endoskopietarako aretoen ondoan, hartara modu anbulatorioan egin daitezkeen kirurgia larriko prozesu gehiago hartzeko toki handiagoa izateko, behar ez diren ospitaleratzeak saihestuz.

### 5. Bideko Ama Birjina Ospitaleko antzinako ZIUa

Plan funtzional bat egiten ari gara, Bideko Ama Birjina Ospitaleko ZIU orokorraren antzinako egoitzak Kirurgia Anbulatorio Larriko unitate baterako egokitzeko; horrek une honetan kirurgia anbulatorio larriko prozesu kirurgikoetan erabiltzen diren tokiak bikoizteko.

### 6. Nafarroako Ospitaleko antzinako gimnasioa

Gaur egun, Nafarroako Ospitaleko antzinako errehabilitazio aretoetan hutsik dauden lokal batzuk badaude, non 2017an zehar errehabilitazio kardiologikoko unitatea ezarriko baita.

Aldi berean Errehabilitazio Zerbitzua hobetzeko hobekuntza txiki batzuk egiten dira.

### 7. L Pabiloia

L Pabiloian espazio batzuk berriz banatzen ari gara Farmazia eta Mikrobiologia artean, Nafarroako Ospitaleguneko Farmazia Zerbitzuari lokal berriak eman eta haietan gaixo anbulatorioei ospitale-erabilerakoak diren farmakoak zuzenean emateko, une honetan horretarako dauden egoitzen gabezia larriak direla eta.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko abenduaren 15ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## **Galdera, Osasun Departamentuak autokontzertazioetan egindako gastuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasun Departamentuak autokontzertazioetan egindako gastuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 25eko 140. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Bernaola andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16-PES-00392), honako hau jakin nahi baitu: Zein da Osasun Departamentuaren 2016ko urtarriletik gaur arteko gastua autokontzertazioetan –"peonadak"–, espezialitatez espe-

zialitate, Reina Sofía Ospitalean, García Orcoyen Ospitalean eta Nafarroako Ospitalegunean? Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

---

#### Reina Sofía Ospitalea

---

Erradiologia .....6.022 €

Errehabilitazioa .....7.049 €

Digestiboa.....10.192 €

---

#### García Orcoyen Ospitalea

---

Anestesia.....4.471 €

Barne Medikuntza (Digestiboa)4.471 €

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko abenduaren 16an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## **Galdera, Nafarroan organo-transplante bat jasotzeko dagoen itxaron-zerrendari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan organo-transplante bat jasotzeko dagoen itxaron-zerrendari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 25eko 140. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Ganuza Bernaola andreak idatziz erantzuteko galdera bat egin

du (9-16-PES-00393), jakin nahi baitu zein den organo-transplante bat jasotzeko Nafarroan dagoen itxaron zerrenda. Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariaren informazioa:

2016ko abenduaren 19an, 4 gaixo daude gibel baterako itxaron zerrendan, 5 bihotzeko transplanterako eta 53 giltzurruneko transplanterako; horietatik 40 aktibo daude (13 aldi baterako kontraindikazio egoeran daude). Birikarako itxaron zerrendan 2 gaixo daude.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko abenduaren 19an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos



## **Galdera, irakasleen lekualdaketa-lehiaketarako ematen diren inprimakiei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, irakasleen lekualdaketa-lehiaketarako ematen diren inprimakiei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 25eko 140. Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari

atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higue-ras jaunak 9-16/PES-00394 galdera egin du. Hona Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Irakasle-langileen lekualdatze lehiaketan parte hartzeko behar den dokumentazioa gaztelaniaz eta euskaraz aurkeztu ahal dela, eta pertsona interesdunentzako bi hizkuntzetako inprimakiak daudela. Hezkuntza Departamentuak pertsona horiei hautatzen duten hizkuntzan ematen die inpri-makia, eta ez dago inongo jarraibide edo erabakirik lehenengo euskarazko inprimakia emateari buruz.

Iruñean, 2016ko abenduaren 21ean

Hezkuntzako kontseilaria: J. Luis Mendoza Peña

## **Galdera, haurrentzako musika-hezkuntzako programa bertan behera uzteari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artiku-luan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, haurrentzako musika-hezkuntzako programa ber-tan behera uzteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko azaroaren 25eko 140. Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higue-ras jaunak 9-16/PES-00395 galdera egin du. Hona Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Haurrentzako musika-hezkuntzako proiektua haur hezkuntzako etapan musika prestakuntza espezializatua integratzen zuen proiektu bat zen. 2014an aurkeztu zion Nafarroako Orkestra Sinfoni-koak Hezkuntza Departamentuari, eta azken horrek entitateari berari eman zion onespena, modu esperimentalean zortzi ikastetxe pilotutan

ezartzeko 2015-16 eta 2016-17 ikasturteetan. Ezarpenaren lehenengo ikasturtearen amaieran, Nafarroako Orkestra Sinfonikoak alde bakarretik erabaki zuen proiektuarekin ez jarraitzea. Nafarro-ako Orkestra Sinfonikoak ez dio Departamentuari ofizialki jakinarazi zergatik erabaki duen esperien-zia pilotuarekin aurrera ez jarraitzea.

Bestalde, baieztatu dezakegu proiektu hori ezarri eginen zela, zeren eta garatu zena esperientzia pilotu bat baizik ez baitzen izan. Edozein esperientzia pilotutan bezala, azterlan bat egin beharko zen haren amaieran, balizko ezarpenaren alde onak eta txarrak balioesteko. Nafarroako Orkestra Sinfonikoak proiektuaren pilotatzea ete-tea erabaki zuenez, ezin izan dugu egin 2017aren hasierarako aurreikusita zegoen azterlan hori.

Azkenik, gure ustez Nafarroako Orkestra Sinfo-nikoak proposatutako proiektua zenez, haren jarraitutasuna orkestra horren asmoen menpe egonen da, bai eta horri buruz hartzen dituzten erabakiak amei, aitei, ikastetxeei eta departamen-tuari berari helaraztearen menpe ere.

Iruñean, 2016ko abenduaren 16an

Hezkuntzako kontseilaria: J. Luis Mendoza Peña

## **Galdera, Ebro ibaiaren eskuineko ibai-bazterreko herrietako langabeziari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ebro ibaiaren eskuineko ibai-bazterreko herrietako langabeziari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren 5eko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak galdera bat egin du Ebro ibaiaren eskuineko ibai-bazterreko herrietako langabeziari buruz (9-16/PES-00396). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Ebro ibaiaren eskuineko ibai-bazterreko herrietako datuak, urtarriletik azarora artekoak, horiexek baitira dauzkagun gaurkotuenak, erantzun honi erantsitakoak dira (Ebroko eskuineko ibai-bazterreko langabezia datuen eranskina). Datuak sexuaren, adinaren eta produkzio- edo jarduerasektorearen arabera banatu dira.

Egindako informazio-eskaeran ez denez zehazten zein herritako informazioa nahi den, honako hauei buruzkoa ematea erabaki dugu: Buñuel, Cascante, Castejón, Cintruénigo, Cortes, Fitero, Fontellas, Monteagudo, Ribaforada eta Tudela.

Aipatu beharra dago, azkenik, informazio hori libreki eskura daitekeela, zeren eta Nafarroako Gobernuaren webguneko enpleguari eskainitako atalean argitaratuta baitago ([www.navarra.es](http://www.navarra.es)).

Aipatutako parlamentariak, halaber, beste departamentu batzuen gogoetei eta ondorioei buruzko informazioa eskatzen du. Erantzuna horietako bakoitzak eman beharko du. Hori dela eta, parlamentariari haiengana joateko gonbit egingen diogu. Zalantzarik gabe erantzuna emanen diete planteatutako galderei.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko abenduaren 29an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Agora sisteman.)

## **Galdera, Nafarroako Erriberako ureztatzaile elkarteei egindako inkesten emaitza ezagutu ondoren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak ateratako ondorioei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Erriberako ureztatzaile elkarteei egindako inkesten emaitza ezagutu ondoren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak ateratako ondorioei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren 5eko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari (UPN) atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-11-/PES-000397) Nafarroako Erriberako ureztatzaile elkarteei egindako inkesten emaitza ezagutu ondoren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak ateratako ondorioei buruz. Hauxe erantzun dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak:

Parlamentu-taldearen aurreko galderari erantzun zitzaien bezala, INTIA SArI egindako enkargua, Nafarroako Erriberan dauden ureztatze-beharretarako ordezkoko aukerak zehazteko, 2016ko abenduaren 31n amaituko dela aurreikusi

da, ur-hornidurak sistemen eta ureztatzaileen elkargoen egoerari dagokionez eta antzemandako eskaerak eta defizitak asetzeko hornidura-iturriak zehazteari dagokionez; izan ere, ordezkoko aukeraren ezaugarri teknikoak eta inbertsioko eta ustiatze/mantentzeko kostuak zehaztuko dira.

Behin agiria amaituta —ez lehenago—, egindako galdera guztiei erantzuteko informazioa edukiko dugu. Agiri hori parlamentu-talde guztiei, erabiltzaileei eta jendeari, oro har, emanen zaie ezagutzera. Datozen hilabeteetan, ureztatzaileen erkidegoei dei egingen zaie informazio-bileretan parte har dezaten, horietako bakoitzerako dauden ur-hornidurako aukera zehatzak azaltzeko.

Azterlanak Ebroko eskuinaldea hartzen du, logikoa denez, baina ez da eskualde horretara mugatzen, zeren eta ezkerrean ere ureztatze-eta hornidura-eskaerak egon baitaitezke. Izan ere, Nafarroako Ubidearen 2. faseak, egungo definizioaren arabera, Ebroko ezkerreko azalerak ureztatzen hastea aurreikusten du. Horrenbestez, ez da arrazoizkoa azterlana mugatzea Ebroko eskuinaldera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko abenduaren 27an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

## **Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseari ekite aldera Nafarroako Gobernuak Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin izandako kontaktuei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ubidearen bigarren faseari ekite aldera Nafarroako Gobernuak Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin izandako kontaktuei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren 5eko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-11/PES-000398) Nafarroako Ubidearen bigarren faseari ekite aldera Nafarroako Gobernuak Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin izandako kontaktuei buruz. Hauxe erantzun dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariak:

Estatuko Administrazio Orokorren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko hitzarmenean

ezarri zen bezala, Nafarroako Ubidea Canasa sozietateak egingen du. Canasaren Administrazio Kontseiluan bi administrazioetako politika hidraulikoaren arduradunek hartzen dute parte. Canasaren burua Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministeriooko Uraren Zuzendaritza Nagusia da, eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa haren mendeko organikoa da.

Kontseiluaren bilerak hilabete behin egiten dira, eta haietan Nafarroako Ubidea egiteari buruzko guztia aztertzen da, horren barne dela 2 faseari dagokiona. Aipatutako bileren akta egiten da. Azken bilera joan den azaroaren 3an egin zen.

Halaber, maila teknikoan, Nekazaritza Azpiegituren Zerbitzuak harremanak eta bilerak izan ditu Ebroko Konfederazio Hidrografikoko Plangintza Hidrologikoaren Bulegoarekin, bi administrazioek eskura daukaten informazioa koordinatze aldera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko abenduaren 27an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

## **Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen aitzinean iragarri zituen aukerak direla-eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak darabiltzan epeei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen aitzinean iragarri zituen aukerak direla-eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak darabiltzan epeei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren 5eko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-11/PES-000399) Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen aitzinean iragarri zituen aukerak direla-eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak darabiltzan epeei buruz. Hauxe erantzun dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak:

Parlamentu-taldearen aurreko galderari erantzun zitzaizkien bezala, INTIA SARI egindako mandatua, Nafarroako Erriberan dauden ureztatze-beharretarako ordezkio aukerak zehazteko, 2016ko abenduaren 31n amaituko dela aurreikusita, ur-hornidurak sistemen eta ureztatzaileen elkargoen egoerari dagokionez eta antzemandako eskaerak eta defizitak asetzeko balizko horniduraturriak zehazteari dagokionez; izan ere, ordezkio aukera horien ezaugarri teknikoak eta inbertsioko eta ustiatzeko/mantentzeko kostuak zehaztuko dira.

2017ko lehen seihilekoan, ureztatzaileen erki-degoei dei egingen zaie informazio-bileretan parte har dezaten, horietako bakoitzerako dauden ur-hornidurako aukera zehatzak azaltzeko. Asmoa da horietako bakoitzak iritzia ematea dauden aukerei buruz, haien ordenantzetan eta estatutuetan ezarritakoaren arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko abenduaren 27an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

## **Galdera, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako Departamentuak inolako -txostenik edo analisirik darabilen Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzeke hasierako aurreikuspenen aitzineko aukerei buruz.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako Departamentuak inolako txostenik edo analisirik darabilen Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzeke hasierako aurreikuspenen aitzineko aukerei buruz. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren 5eko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higue-

ras jaunak galdera egin du (9-16/PES-00400) Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen eraikuntzari buruz. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariak, zeinak behean sinatzen baitu, ematen dion erantzuna:

Garapen Ekonomikorako Departamentua Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak INTIA SARI enkargatutako laguntza teknikoa, Nafarroako Erriberarako ureztatze beharretarako aukerak zehaztekoa, noiz amaituko den zain dago. 2016ko abenduaren 31n amaituko dela aurreikusi da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko abenduaren 29an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

## **Galdera, jakiteko ea Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak inolako informaziorik jaso duen ureztatzaile elkarte edo sindikatuen, toki entitateen, elkarteen edo lehen sektoreko kolektiboen aldetik, Nafarroako Erriberan nekazaritza edo abeltzaintza erabilerarako ura bermatzeko beharrari buruz.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko ea Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak inolako informaziorik jaso duen ureztatzaile elkarte edo sindikatuen, toki entitateen, elkarteen edo lehen sektoreko kolektiboen aldetik, Nafarroako Erriberan nekazaritza edo abeltzaintza erabilerarako ura bermatzeko beharrari buruz. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren 5eko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari (UPN) atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du jakiteko ea Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak inolako informaziorik jaso duen ureztatzaile elkarte edo sindikatuen, toki entitateen, elkarteen edo lehen sektoreko kolektiboen aldetik, Nafarroako Erriberan nekazaritza edo abeltzaintza erabilerarako ura bermatzeko beharrari buruz (9-16-/PES-000401). Hauxe erantzun dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariak:

Landa Garapeneko Departamentuak inolako informaziorik jaso al du ureztatzaile elkarte edo sindikatuen, toki entitateen, elkarteen edo lehen



sektoreko kolektiboen aldetik, Nafarroako Erriberan nekazaritza edo abeltzaintza erabilerarako ura bermatzeko beharrari buruz? Baiezkoan, zehaztu.

Parlamentu-taldeen aurreko galderen erantzunetan aipatu den bezala, INTIA SARI egindako mandatuak, Nafarroako Erriberan dauden ureztatzeko-beharretarako ordezkio aukerak zehaztekoak, jasotzen du azterlanaren esparruko ureztatzaileen komunitateei inkesta exhaustiboak egitea, eta inkesta horietan komunitate horiek parlamentariak azaldutakoari buruzko iritzia eman baitute.

PES-00401 galderarako eranskina gehitu dugu, egindako inkestekin eta haien datarekin.

Departamentuak aurreikusten al du inolako hartu-emanik izatea talde horiekin auzia aztertzeko?

2017ko lehen seihilekoan, ureztatzaileen komunitateei dei eginen zaie informazio-bileretan parte har dezaten, horietako bakoitzerako dauden urhornidurako aukera zehatzak azaltzeko. Asmoa da horietako bakoitzak iritzia ematea dauden aukerei buruz, haien ordenantzetan eta estatutuetan ezarritakoaren arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko abenduaren 27an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria, Isabel Elizalde Arretxea

	Azalera ureztagarria (ha)	Inkestaren data
<b>ALHAMA IBAIA</b>		
Fiteroko Ureztatzaileen Komunitatea	1.117	2016/08/17
Cintruenigoko La Navako eta Alhamako Ureztatzaileen Sindikatua	2.281	2016-08-25
Corellako Ureztatzaileen Komunitateko Ureztatzaileen Sindikatua	3.603	2016-08-03
<b>QUEILES IBAIA – EL VAL URTEGIA</b>		
Monteagudoko Ureztatzaileen Komunitatea	1.028	2016/08/04
Barillasko Ureztatzaileen Komunitatea	277	2016/08/04
Ablitasko Ureztatzaileen Komunitatea	317	2016/08/24
Tulebrasko Ureztatzaileen Komunitatea	373	2016/08/04
Cascanteko Ureztatzaileen Komunitatea	4.015	2016/07/27
Desolado de Lor Ureztatzaileen Komunitatea	142	2016/08/17
<b>TAUSTEKO UBIDEKO UREZTATZAILEEN SINDIKATUA, honako hauek hartzen dituenak</b>		
Tuterako Valdetellasko herri-lurrak	238	2016/08/12
Cabanillasko lurzatie berrantolamenduko eremuko jabeen elkartea	540	2016/05/11
Cabanillasko Las Planasko herri-lurrak	112	2016/05/24
Cabanillasko Viñas Viejas herri-lurrak	108	2016/05/24
Fustiñanako ureztatzaileak	865	2016/06/03
Buñuelgo ureztatzaileak	900	2016/05/11
<b>ARAGOIKO UBIDE INPERIALA</b>		
Fontellasko "El Soto" Ureztatzaileen Komunitatea	75	2016/06/21
Ribaforadako La Huerta Ureztatzaileen Sindikatua	620	2016/06/17
Buñuelgo Aragoiko Ubide Inperialeko Ureztatzaileen Komunitatea	1.424	2016/06/22
Cortesko Aragoiko Ubide Inperialeko Ureztatzaileen Komunitatea	771	Ezezkoa eman diote inkestari erantzuteari
		2016/06/21

<b>BARDEAKO UBIDEA – NAFARROAKO UBIDEA – EL FERAL ETA MORANTE URTEGIAK</b>		
<b>EL FERAL UREZTATZAILEEN KOMUNITATEA, honako hauek hartzen dituenak</b>		
Caparrosoko Balsilla Marín aldeko herri-lurrak	110	2016/06/02
Caparrosoko La Sarda herri-lurrak	134	2016/06/02
Errege Bardeako Landazuria eskualdea	508	2016/06/02
Errege Bardeako Barranco eskualdea	225	2016/06/02
Valtierrako La Quemada herri-lurrak	430	2016/06/02
<b>MORANTE URTEGIA ETA BARRANCO SALADO</b>		
Villafrancako Barranco Agua Salado Ureztatzaileen Komunitatea	670	2016/09/20
Villafrancako Transformación Morante Nekazaritza Sozietatea	993	2016/05/12
Cadreitako Transformación Valcaldera Nekazaritza Sozietatea	683	2016/05/12
Villafrancako Hondo Espartosa Ureztatzaileen Komunitatea	460	2016/05/30
<b>LODOSAKO UBIDEA</b>		
Corellako Ureztatzaileen Komunitateko Ureztatzaileen Sindikatuaren barruan dago	300	2016-08-03
Corellako Ombatilloko Ureztatzaileen Komunitatea	862	2016/09/08
Castejongo Ureztatzaileen Komunitatea	602	2016/09/05
Tuterako Motes de Cierzo I aldeko herri-lurrak	615	2016/08/12
Tuterako Motes de Cierzo II aldeko herri-lurrak	1.157	2016/08/12
Tuterako Huertas Mayores eta Campos Unidos Ureztatzaileen Sindikatua	1.459	2016/08/08
Murchanteko Ureztatzaileen Sindikatua	1.266	2016/09/05
Murchanteko La Torre aldeko herri-lurrak	62	2016/09/05
Cintruenigoko La Navako eta Alhamako ureztatzaileen sindikatua	1.673	2016/08/25
Cascanteko Camponuevo aldeko herri-lurrak	331	2016/08/17
Murchanteko Saso Pedriz Ureztatzaileen Komunitatea	689	2016/09/05
Tuterako El Campo de Valpertuna Ureztatzaileen Sindikatua	232	2016/08/08
Fontellasko Ureztatzaileen Komunitatea	148	2016/09/07
Fontellasko Camino de Ablitas y Cascanten Eraldaketarako Nekazaritza Sozietatea	415	2016/09/07
Ribaforadako El Monte Ureztatzaileen Komunitatea	1.542	2016/05/27
		2016/08/11
Ablitasko Ureztatzaileen Komunitatea	1.250	2016/08/24
Ribaforadako Finca La Dehesa Ureztatzaileen Komunitatea	525	2016/05/27
		2016/08/11
Buñuelgo Udala	143	2016/10/04
Corteko Canal de Lodosa Ureztatzaileen Komunitatea	1.918	2016/08/24
<b>ARAGOI ETA EBRO IBAIAK</b>		
Villafrancako Ureztatzaileen Sindikatua	1.380	2016/10/03
Milagroko Campo Izquierdo del río Aragón Ureztatzaileen Komunitatea	922	2016/09/23
Cadreitako Ureztatzaileen Komunitatea	1.259	2016/09/23
Valtierrako Ureztatzaileen Komunitatea	1.144	2016/09/23
Cadreitako La Muga Ureztatzaileen Komunitatea	268	2016/09/20
Arguedasko El Saso Ureztatzaileen Komunitatea	969	2016/10/03
Tuterako Murillo de Las Limas Ureztatzaileen Komunitatea	532	2016/10/03
Arguedasko El Saso Ureztatzaileen Komunitatea	1.255	2016/09/28
Tuterako Campo de Traslapuente Ureztatzaileen Sindikatua	713	2016/08/08

## **Galdera, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak lurzati-berrantolamendua dela-eta hurrengo urteotan eginen dituen jarduketei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak lurzati-berrantolamendua dela-eta hurrengo urteotan eginen dituen jarduketei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren 5eko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Alberto Catalán Higuera foru parlamen-

tariak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-000402) Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak lurzati-berrantolamendua dela-eta eginen dituen jarduketei buruz. Hauxe erantzun dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariak:

“Landa Garapeneko Departamentuak zer jarduketa eginen ditu hurrengo urteotan lurzati-berrantolamendua dela-eta?”

Zer herritan? Zer aurrekontu-beharrizan uste du egonen direla?”

Bideen eta hustubideen sareetako obretan sartuta dauden lurzati-berrantolamenduko jarduketak, datozen urteetan egitea aurreikusi direnak, ondoko taula honetan adierazten direnak dira:

<b>Eremua</b>	<b>Azalera (hektareak)</b>	<b>Kostua (€)</b>	<b>Epea</b>
Galipentzu	5.267	4.980.000	2017-2022
Uitzi	1.056	1.500.000	2022-2024
Alloz-Montalban	825	1.000.000	2024-2025
Rocaforte	1.025	1.000.000	2025-2026
Girgillao-Etxarren Girgillao	880	1.000.000	2026-2027

Era berean, Nafarroako Ubidearen 1. fasearen handitzearen eremuen taula erantsi dugu. Handitze hori 2015etik 2018ra bitartean eginen da, eta horretarako inbertsioa 147 milioi eurokoa da. (1. eranskina).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko abenduaren 27an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

SEKTorea / EREMUA	Kalkulatu beharreko azalera urretagarria	INTIAk lurzati-berrantolamenduari buruzko erabakia SIAri eta sozietate emakidadunari emateko mugagunak (sozietate emallearen betebeharra)	INTIAk lurzati-berrantolamenduari buruzko erabakia SIAri eta sozietate emakidadunari emateko mugagunak (sozietate emallearen betebeharra)	SIak INTIAren aldeko txostenarekin batera Eraikuntza proiektua onesteko mugagunak (sozietate emallearen betebeharra)	SIak INTIAren aldeko txostenarekin batera Eraikuntza proiektua onesteko mugagunak (sozietate emallearen betebeharra)	Obren hasierarako datak emallearen betebeharra	1. egiaztapen aktaren (EA) datak eta ordainsarien sortzapen hasiera	1. EAKo azalera	2. EAKo azalera	2. EAKo datak eta ordainsarien sortzapen hasiera	Ureztatzearen hasiera
	(hektareak)	(ZEA)	ZEA + 3 hilabete	ZEA + 3,5 hilabete	ZEA + 4 hilabete		Ureztatzearen hasiera			Ureztatzearen hasiera	
ARGA 1-A	96 ha	15-uzt-14	15-urr-14	30-urr-14	15-aza-14		15-apr-15	96 ha			
ARGA 1-B	127 ha	15-abe-14	15-mar-15	01-apr-15	15-apr-15		15-apr-16	127 ha			
ARGA 2	1.056 ha	15-uzt-15	15-urr-15	30-urr-15	15-aza-15		15-apr-17	1.056 ha			
ARGA 3	950 ha		[*]		15-aza-14		15-apr-16	950 ha			
ARGA 4	1.363 ha	15-uzt-16	15-urr-16	30-urr-16	15-aza-16		15-apr-18	1.363 ha			
ARGA 5	800 ha	15-uzt-15	15-urr-15	30-urr-15	15-aza-15		15-apr-17	800 ha			
ARGA 6	802 ha		[*]		15-urr-16		15-apr-17	802 ha			
XXIII sektorea	679 ha	15-abe-14	15-mar-15	01-apr-15	15-apr-15		15-apr-16	679 ha			
XXIV.A sektorea	500 ha	15-uzt-14	15-urr-14	30-urr-14	15-aza-14		15-apr-15	500 ha			
XXIV.B sektorea	1.538 ha	15-uzt-14	15-urr-14	30-urr-14	15-aza-14		-	-			15-apr-16
XXV sektorea	298 ha	28-ots-15	30-mai-15	15-eka-15	30-eka-15		15-apr-16	298 ha			
EGA 1	119 ha		[*]		15-aza-15		15-apr-16	119 ha			
EGA 2	1.033 ha	15-uzt-15	15-urr-15	30-urr-15	15-aza-15		15-apr-17	1.033 ha			
EGA 3	1.233 ha	15-abe-15	15-mar-16	31-mar-16	15-apr-16		15-apr-17	1.233 ha			
EGA 4	1.247 ha	15-uzt-16	15-urr-16	30-urr-16	15-aza-16		15-apr-18	1.247 ha			
EGA 5	731 ha		[*]		15-urr-17		15-apr-18	731 ha			
EGA 6	438 ha	15-abe-16	15-mar-17	01-apr-17	15-apr-17		15-apr-18	438 ha			
EGA 7A	231 ha		[*]		15-aza-17		15-apr-18	231 ha			
EGA 7B	100 ha	15-abe-16	15-mar-17	01-apr-17	15-apr-17		15-apr-18	100 ha			
EGA 8	689 ha		[*]		15-urr-17		15-apr-18	689 ha			
EGA 9	1.245 ha		[*]		15-urr-17		15-apr-18	1.245 ha			

[\*] Sektore edo eremu horietan jada ZEA badago kontratu hau lizitatzeko datan

## **Galdera, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako Departamentuak enpresen, toki entitateen, elkarteen edo enpresaburuen aldetik inolako informaziorik edo eskaerarik jaso duen Nafarroako Erriberan industria-erabilerarako ura bermatzeko beharrari buruz.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako Departamentuak enpresen, toki entitateen, elkarteen edo enpresaburuen aldetik inolako informaziorik edo eskaerarik jaso duen Nafarroako Erriberan industria-erabilerarako ura bermatzeko beharrari buruz. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren 5eko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak galdera egin du (9-16/PES-00403) Nafarroako Erriberan industria-erabilerarako ura bermatzeko beharrari buruz. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariak, zeinak behean sinatzen baitu, ematen dion erantzuna:

“-Garapen Ekonomikorako Departamentuak enpresen, toki entitateen, elkarteen edo enpresaburuen aldetik inolako informaziorik edo eskaerarik jaso al du Nafarroako Erriberan industria-erabilerarako ura bermatzeko beharrari buruz?”

Bai. Garapen Ekonomikorako Departamentuak jakin du bi enpresek aurreikusia dutela ur-eskari handiagoa izatea datozen urteetan, instalazioan aldaketa handia eginen dutelako edo/eta jarduera sailkatuan aldaketa handia egin dutelako. Bi kasuetan, enpresek jada beren espedienteak eta ingurumen-baimenak ezarritako bide administratibotik izapidetzen ari dira.

Baiezkoan, zehaztu:

“-Hartu-emanik izanen al du talde horiekien auzia aztertzeke?”

Aurreko galderaren erantzunean aipatu den informazioa Garapen Ekonomikorako kontseilariari

helarazi zaiou enpresekin izaten dituen topaketa eta bileretan.

“-Ba al dago industria-proiekturik, behar adinako ur-hornidura edukitzeko zain dagoena Nafarroako Erriberan ezartzeko?”

Ez. Garapen Ekonomikorako Departamentuak ez du jakin Nafarroako Erriberan ezartzeko behar adinako ur-hornidura edukitzeko zain dagoen inongo industria-proiekturik dagoenik.

Egia da nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreko enpresaren bat aztertzen ari dela Nafarroako Erriberan ezartzeko aukera. Horri dagokionez, Sodena (Sociedad de Desarrollo de Navarra SL) lan egin duela eta lan egiten ari dela nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreko enpresa horren ezarpenean laguntzeko. Enpresa horrek urtean 2.200.000 m<sup>3</sup>-ko beharrak izanen litzuzke, eta horretarako balizko hiru kokapen eskaintzen zaizkio Nafarroako Erriberan, eta hiruetan betetzen dira enpresak ura dela-eta behar dituen baldintzak.

Madrilera begirako arrazoi logistiko eta estrategikoak tarteko, sustatzaileak Nafarroarekin mugakideak diren beste autonomia erkidego batzuk ere ebaluatzen eta aztertzen ari dira ezartzeko.

“-Ba al dago hirigintza-garapenik, gizakientzako edo industriarako hornidura Nafarroako Ubidearekin bermatu duenik eta gauzatzeko zain dagoenik?”

Ez. Garapen Ekonomikorako Departamentuan ez dugu jakin egiteko dagoen inongo hirigintza-garapenik dagoenik Nafarroako Ubidearekin giza hornidura edo industriarako hornidura bermatu duenik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko abenduaren 29an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

**Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egin eta gero bertako ura jaso behar zuten herrietako uraren kalitatea dela-eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak eta Toki Administrazioiko Departamentuak Osasun Departamentuarekin izandako kontaktuei buruzkoa.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egin eta gero bertako ura jaso behar zuten herrietako uraren kalitatea dela-eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak eta Toki Administrazioiko Departamentuak Osasun Departamentuarekin izandako kontaktuei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren 5eko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak ondoren azaltzen den idatziz erantzuteko galdera egin du, eta ondotik dator Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariaren erantzuna. ¿Landa Garapeneko Departamentuak izan al du inolako hartu-emanik Osasun Departamentuarekin legegintzaldia hasi zenez geroztik, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egin eta gero bertako ura jaso behar zuten herrietako uraren kalitatea dela-eta? (9-16-/PES-00404). Hauxe da kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako hiri erabilerako uraren ziklo integralaren plan zuzendaria idaztearen kariatara, azken hilabeteetan hiru bilera egin ditugu Osasun Departamentuarekin. Ondoren aipatzen ditugu horietako bakoitzean aztertu ditugun gaiak.

- 2016ko ekainaren 29a. Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren egoitzan, honako hauetako ordezkariak bertan zirela: Ingurumeneko eta

Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusia, NILSA, GAN eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak Nafarroako hiri erabilerako uraren ziklo integralaren plan zuzendariaren erredakzioan laguntzeko balizko aukerak aztertu ziren.

- 2016ko urriaren 21a. Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren egoitzan, honako hauetako ordezkariak bertan zirela: Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusia, Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia, NILSA, GAN eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua. Besteak beste, kontsumorako uraren kalitateaz hitz egin zen.

- 2016ko urriaren 25a. Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendaritza Nagusiaren egoitzan, honako hauetako ordezkariak bertan zirela: Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusia, Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendaritza Nagusia, NILSA, GAN eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua. Besteak beste, kontsumorako uraren kalitateaz eta Erribera aldean detektatutako gorabeherei buruz hitz egin zen.

Bilera horien ondorioz egindako lanen emaitzak Nafarroako hornidurako eta saneamenduko plan zuzendarien egungo egoeraren diagnostikokan jasoko dira. 2016ko abenduaren 31 baino lehenorako aurreikusi da diagnostiko hori.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko abenduaren 29an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea



## **Galdera, jakiteko ea Osasun Departamentuak gorabeherarik detektatu duen, legegintzaldia hasi zenez geroztik, Nafarroako ubidearen bigarren fasea eraikitzen denean bertako ura jaso behar duten herrietako edateko uraren kalitatean.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuerras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko ea Osasun Departamentuak gorabeherarik detektatu duen, legegintzaldia hasi zenez geroztik, Nafarroako ubidearen bigarren fasea eraikitzen denean bertako ura jaso behar duten herrietako edateko uraren kalitatean. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren 5eko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuerras jaunak idatziz erantzuteko honako galdera hau egin du (9-16/PES-00405): "Osasun Departamentuak gorabeherarik detektatu al du, legegintzaldia hasi zenez geroztik, Nafarroako ubidearen bigarren fasea eraikitzen denean bertako ura jaso behar duten herrietako edateko uraren kalitatean?" Honako hau da Nafarroako Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

Honako hauek zehaztu ditugu: giza konsumorako uraren kalitatea zein herritan kontrolatu den, lagina zein egunetan hartu den, haren sailkapena, gorabehera eragin duen kalitate-parametroa eta haren emaitza kualitatiboa:

#### Ablitas

2016ko maiatza. Ur-lagina, zeina GAITZAT jotzen baita, EZ-BETETZE BATEKIN. Parametroa: Bakterio koliformeak, 5 NMP/100ml emaitzarekin.

#### Monteagudo

2015eko abuztua. Ur-lagina, zeina GAITZAT jotzen baita, EZ-BETETZE BATEKIN. Parametroa: Bakterio koliformeak, 45 NMP/100ml emaitzarekin.

#### Murchante

2015eko urria. Ur-lagina, zeina GAITZAT jotzen baita, EZ-BETETZE BATEKIN. Parametroa: Bakterio koliformeak, 1 NMP/100ml emaitzarekin.

#### Cortes

2016ko maiatza. Ur-lagina, zeina EZ-GAITZAT jotzen baita. Parametroa: Kloratoak, 1000 µg/l-tik gorako emaitzarekin.

2016ko iraila. Ur Edangarriaren Tratamendu Estazioaren irteeran hartutako ur-lagina, zeina EZ-GAITZAT jotzen baita. Parametroa: Bromatoak, 20 µg/l-tik gorako emaitzarekin.

2016ko urria. Ur edangarriaren Tratamendu Estazioaren irteeran eta banaketa-sarean hartutako ur-laginak, zeinak EZ-GAITZAT jotzen baitira. Parametroa: Bromatoak, 61 µg/l eta 20 µg/l emaitzekin, hurrenez hurren.

#### Alesbes

2015eko uztaila. Ur-lagina, zeina GAITZAT jotzen baita, EZ-BETETZE BATEKIN. Parametroa: Aluminioa, 211 µg/l-ko emaitzarekin

2015eko abuztua. Ur-lagina, zeina GAITZAT jotzen baita, EZ-BETETZE BATEKIN. Parametroa: Aluminioa, 250 µg/l-ko emaitzarekin.

2016ko urtarrila. Ur-lagina, zeina EZ-GAITZAT jotzen baita. Parametroa: Uhertasuna, 7,2 UNF-ko emaitzarekin.

#### Cadreita

2016ko abuztua. Ur-lagina, zeina EZ-GAITZAT jotzen baita. Parametroa: Uhertasuna, 8,9 UNF-ko emaitzarekin.

2016ko martxoa. Ur-lagina, zeina EZ-GAITZAT jotzen baita. Parametroa: Uhertasuna, 6,0 UNF-ko emaitzarekin.

#### Milagro

2015eko abuztua. Ur-lagina, zeina GAITZAT jotzen baita, EZ-BETETZE BATEKIN. Parametroa: Bakterio koliformeak, 4 NMP/100ml emaitzarekin.

2015eko ekaina. Herriko industrialdean hartutako ur-lagina, zeina EZ-GAITZAT jotzen baita. Parametroa: Nitritoak, 58 mg/l-ko emaitzarekin.

Fustiñana

2015eko abuztua. Ur-lagina, zeina GAITZAT jotzen baita, EZ-BETETZE BATEKIN. Parametroa: Bakterio koliformeak, 32 NMP/100ml emaitzarekin.

2016ko urtarrila. Ur-lagina, zeina GAITZAT jotzen baita, EZ-BETETZE BATEKIN. Parametroa: Bakterio koliformeak, 66 NMP/100ml emaitzarekin.

Tutera

2015eko abuztua. Ur Edangarriaren Tratamendu Estazioaren irteeran hartutako ur-lagina, zeina EZ-GAITZAT jotzen baita. Parametroa: Herbizida metalakloroa, 0,12 µg/l-ko emaitzarekin.

Cascante

2016ko urria. Ur-lagina, zeina EZ-GAITZAT jotzen baita. Parametroa: Kloratoak, 1000 µg/l-tik gorako emaitzarekin.

Cintruénigo

2016ko maiatza. Ur-lagina, zeina EZ-GAITZAT jotzen baita. Parametroak: bakterio koliformeak, 201 NMP/100ml-ko emaitzarekin, eta aluminioa, 266 µg/l-ko emaitzarekin.

2016ko abuztua. Ur-lagina, zeina EZ-GAITZAT jotzen baita. Parametroa: Kloratoak, 820 µg/l-tik emaitzarekin.

2016ko iraila. Ur-lagina, zeina EZ-GAITZAT jotzen baita. Parametroa: Kloratoak, 1000 µg/l-tik gorako emaitzarekin.

2016ko urria. Ur-lagina, zeina EZ-GAITZAT jotzen baita. Parametroa: Kloratoak, 921 µg/l-ko emaitzarekin.

Fitero

2016ko urria. Ur-lagina, zeina EZ-GAITZAT jotzen baita. Parametroa: Kloratoak, 1245 µg/l-ko emaitzarekin.

Aurreko informazioa dagokie Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak 2015eko ekainaren 17tik aurrera —data horretan hasi baitzen galderan aipatzen den IX. legegintzaldia— gaur arte garatu dituen osasun-zaintzako jarduketetan giza kontsumorako uren kalitatearen parametroren batean detektatutako ez-betezteengatik gorabeheri.

Guztira detektatu diren gorabeherak direla eta, hartutako neurri zuzentzaileen jarraipena egin da, eta egiaztapen-analisia egiteko ur-lagin berriak hartu dira. Aipatu beharra dago aurrez aipatu ditugun ez-betetzeetako bakarra ere ez dagoela indarrean.

Txostenean jasotako herriak dira plan zuzendarriak Nafarroako Ubidearen bigarren fasetik aurrera hornitzeko aurreikusi dituenak.

Uraren kalifikazioa egiten da Gizakien kontsumorako uraren kalitaterako osasun-irizpideak ezarri dituen otsailaren 7ko 140/2003 Errege Dekretuaren 17.4 eta 27.7 artikuluetan ezarritako irizpideak eta I. eranskineko parametroak eta parametro-balioak aplikatuz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko abenduaren 20an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## Galdera, Geoalcali S.L.k sustatutako Muga meategiaren proiektuari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Dabid Anaut Peña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Geoalcali S.L.k sustatutako Muga meategiaren proiektuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren 5eko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Dabid Anaut Peña jaunak ondoren azaltzen den galderari idatziz erantzuteko eskatu du, eta ondotik dator Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari kontseilariaren erantzuna. Hauxe da parlamentariak esandakoa: "Muga meategiaren proiektuarekin lotutako Geoalcali fundazioa meategia eraikiko litzatekeen eskualdeko hainbat udali lankidetzatza eta babes eskaintzen ari zaizkie, besteak beste horretarako hitzarmenak sinatuz edo laguntza ekonomikoak emanez. Udal horiek, hain zuzen ere, proiektuak aurrera egiten badu, jarduera edo ekintza jakinetarako baimenak eman beharko dituzten horiek berak dira" (16-/PES-00406). Hona erantzuna:

Egindako galdera:

• Nafarroako Gobernuak ba al du lankidetzatza eta babes emateko hitzarmen edo bestelako urrats horien berri? Ezagutzen ditu mugimendu horiek guztiak?

Erantzuna:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari Departamentuak ez ditu ezagutzen balizko lankidetzatza- eta babes-hitzarmen horiek, ezpada hedabideetan eta informazio publikoko beste bide batzuetan, nola baita Geoalcali fundazioaren webgunean, agertzen diren erreferentziengatik.

Egindako galdera:

• Zenbat eta zein dira udal horiek?

Erantzuna:

Horrenbestez, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari Departamentuak ez

du balizko hitzarmenen eta ukitutako udalen ez kontrolik, ez erregistrorik, eta ez du haietan esku hartu, eta eskatu ere ez zaio halakorik eskatu.

Egindako galdera:

• Muga proiektuari baimena Estatuko administrazioak eman behar dio, Nafarroako Gobernuak eta Aragoiko Gobernuak horretarako agindua eman baitzioten. Hala ere, maila xeheago batean, udalek ere baimen batzuk eman beharko dituzte. Proiektuari dagokion prozedura osoan, zein dira, zehazki, udalen eskumena diren baimen administrazioak eta urratsak?

Erantzuna:

Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legeak, bai eta hura garatzen duen Erregelamenduak ere (abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretua), beren eranskinetan ingurumeneko esku-hartzeen xede diren jarduerak biltzen dituzte; izan ere, jarduera bat eranskin horietako batean egoteak berriazko baimen-prozedura bat badakar. 3B eranskinak soilik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten jarduerak eta proiektuak jasotzen ditu, eta zehazki, A) ataleko 2. puntuan lurpeko meatzaritza sartzen da, GEOALCALIk proposatzen duen meategiaren kasuan biltzen direnen antzeko inguruabarrak gertatzen den ustiatzearen kasurako. Horrek esan nahi du jarduera horretarako aurreikusita dagoen ingurumeneko esku-hartze bakarra dela ingurumen-inpaktuaren kasuko ebaluazioa, zeinaren amaieran ingurumen-inpaktuaren adierazpena emanen baita.

Ingurumen-inpaktuaren adierazpena, 3B eranskinaren aipatutako atalari dagokion amaierako lerrokan ezarritakoari jarraituz, honakoak ere hartzen ditu: minerala tratatzeko, meategietako edo aprobetxamendu mineralurgikoko esterilak aldi batez pilatzeko edo hondarrak biltzeko (zabortegiak, presak eta urmaelak edo esterilak, birrintze-plantak edo planta mineralurgikoak eta abar)”.

Izapidetze hori Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak berresten du, eta oinarritzko arau bat da hori, Espainiako estatu osoan aplikatzeko. 1. eranskina (Ingurumen-ebaluazio arrunta behar duten proiektuak). 2. multzoa. Erauzpen industria. Lurpeko meatzaritza hartzen du, eta amaieran dio ingurumen-ebaluazioan honako hauek sartzen direla: "minerala erauzteko,

tratatzeko, biltegitzeko, aprobetxatzeko eta garraiatzeko behar diren instalazio eta egiturak; hondar antzuen metatzeak; idoiak; eta linea elektrikoak, ur-horniduran eta uraren arazketa eta sarbide berrietarako bideak.”

Azken batean, inongo udalak ez du jarduera sailkatuaren lizentzia edo beste ingurumen-baimenen bat eman beharko meategi horren proiektua dela eta. Horri dagokionez, aipatu beharra dago oker bat tarteko 2015eko abenduaren 2ko agerraldian kontrakoa informatu genuela.

Aipatutakoa gorabehera, kasuko udalak bidezkoa den obretarako lizentzia eman beharko duela.

Gainera, urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruan garatzen diren jarduketek Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 117. artikuluan jasotako baimena eskatzen dute, eta horretarako Udalak aipatutako artikulua araberako joko du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko abenduaren 30ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

## **Galdera, edari azukredunen produkzioa zegapetzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, edari azukredunen produkzioa zegapetzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren 5eko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, azaroaren 24ko 4541. sarrera-zenbakiarekin erregistratua, Estatuko beste lurralde batzuetan proposatu den edari azukredunen produkzioa zergapetzea dela eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruz (9-16/PES-00407). Hau erantzun dio Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak:

Berriki, Nazio Batuen Osasunaren Agentziak eskari edo apelazio bat egin du, munduko herrialde guztiek berariazko zergak ezar ditzaten azukredun edarien gainean. Neurri horren helburua da obesitatearen eta diabetesaren egungo uholdea gutxitzea, zeren eta, agentzia horren iritziz, egiazko zigor bat bihurtu baita mundu osoan, eta ehunaka milioi pertsonarengan eragina baitu; bereziki kezagarria da, gainera, haurren artean.

Zehazki Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) argudiatzen du azukredun edarien prezioa % 20 igotzen duen zerga batek antzeko proportzioetan jaitzaraziko lukeela edari horien kontsumoa, erakunde horren egin duten txosten baten arabera.

Neurri hori ez da berria; izan ere, Mexiko, Frantzia, Hungaria, Txile eta Erresuma Batua bezalako herrialdeek antzeko zergak ezarrita dauzkate. Portugalak antzeko neurriak ezartzea aurreikusia du eta Kataluniako Parlamentuak babestu du Kataluniako Gobernuak zerga bat susta dezan azukre eta sodio gehiegi duten edarietarako, nahiz eta errefusatu duen exekutiboak zerga hori bera ezar dezan ezaugarri bera duten elikagaien zatia, alegia, azukre, sodio eta gantz ase gehiegi duten elikagaien zatia.

Beste herrialde batzuek, Alemaniak kasu, badi-rudi zerga hori ezartzea baztertu dutela, zergak desio diren eraginak izanen ez dituelakoan eta hura biltzeko behar den kontrol administratiboa gehiegizkoa delako. Herrialde hauen oinarria da Danimarkan gertatutako hutsegitea, zeren eta herrialde hartan ezarri bai baina gero indarririk gabe utzi baita.

Erresuma Batuari dagokionez, Ekonomia ministroak neurri hori iragarri du 2016-17 urteetarako aurrekontu-proposamena aurkezteko garaian, eta iragarri du 660 milioiko (eurotan) diru-bilketa lortuko dela. Azukre asko duten edariei zerga bat ezarriko zaie, eta horrek oso harrera ona izan du osasunaren sektorean. Aditzera ema-

ten da zerga berriak bi zergapetze mota izanen dituela, bata ehun mililitro bakoitzeko 6 gramo azukre duten edarietarako eta bestea, berriz, altuagoa, ehun mililitro bakoitzeko 8 gramo azukre dituztenetarako. 2018an ezarriko da, ukitutako sektore ekonomikoak, nahi badu, errealitate juridiko berrira egokitzeko denbora izan dezan, formulak eta eduki azukredunak aldatuta.

Europar Batasunaren ikuspuntutik, zerga berezi ez-harmonizatu bat izanen litzateke, eta zergapean jarriko lituzke zerga berezi harmonizatuen pean ez dauden produktuak, zenbait garraibideri ezartzen zaien zergarekin gertatzen den antzera. Kasu horietan, 2008/118/CE Zuzentarauaren 1.3 artikulua xedatzen dituen baldintza bakarrak dira zerga horiek negozio-bolumenaren gaineko zergaren izaera ez edukitzea eta halako zergapetzeak ez eragitea, Batasuneko kide diren estatuen arteko merkataritzan, mugak zeharkatzearekin lotutako izapiderik. Azken batean, Zuzentarauaren artikulua horrek Batasuneko kide diren estatuetako kideak gaituko lituzke egokitzen jotzen duten gutzietan zerga-figura berriak ezartzera, zenbait produkturen gaineko kontsumoa zergapetuko dutenak; esate baterako, edari azukredunen kontsumoa.

Espainiako estatuaren esparruan, ez da ezarri beharreko zergari buruzko xehetasunik eman (nolanahi ere, Nafarroako Zerga Ogasunak ez daki ezer ere hari buruz), baina iragarri da urtean 200 milioi inguruko diru-bilketa eragingen duela; horrek, Nafarroara ekarrita, 3 milioi euro inguruko zerga-bilketa eman dezake.

Komeni da gogoraraztea Hitzarmen Ekonomikoaren 6. artikulua azken lerrokadak honako hau ezartzen duela: "Estatuak zerga berri bat

ezartzeko lege proiektu bat aurkezten duenean, Koordinazio Batzordea biltzeko deialdia egingen da, edo hark eskuordetzen duen azpibatzaordea biltzekoa, Hitzarmena Estatuak ezarri nahi duen zerga berriarekin bat datorren ebaluatu eta azter dezan, Hitzarmenaren hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako prozedurarekin bat."

Bestalde, oinarritzkoa da ezagutzea ea zerga berriak fabrikazioaren gaineko zerga bereziaren izaera izanen duen, eta hark Nafarroako lurraldean sortzeak soilik gertatuko litzatekeen edariak ekoizten dituen lantegia gure lurraldean badago; izan ere, hala balitz, zerga zeharkako zergen bidez kontsumoari doitzeko formula bat arbitratu beharko litzateke, Hitzarmen Ekonomikoaren 65. artikuluan ageri direnen antzekoa.

Aitzitik, kontsumoaren gaineko zerga berezi bat bada, elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren antzekoa, sortzapena Nafarroan gertatuko litzateke azukredun edariak Nafarroako lurraldean kontsumitzaileen eskura jartzen direnean. Kasu horretan, kontsumoari doitzeko formula segur aski askoz ere errazagoa izanen litzateke, baina zergaren kudeaketa zaildu egingen litzateke, haren peko subjektu pasiboen kopuru handia dela eta.

Azaldutakoa dela eta, ondoriozta daiteke ezen, zergaren zerga-sistemaz kanpoko asmo onak (obesitatearen aurkako borroka) gorabehera, hari buruz galdera eta ahuldade gehiegi daudela, eta hori dela-eta ezin dugula balizko ezarpenari buruzko balioespen zehatzagorik egin.

Iruñean, 2016ko abenduaren 28an

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilari  
Mikel Aranburu Urtasun modu digitalean sinatua

## **Galdera, telefonia mugikorrek Nafarroan duen estaldurari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, telefonia mugikorrek Nafarroan duen estaldurari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren 12ko 148. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako foru parlamentari Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Foru Komunitateko telefonia mugikorraren estaldurari buruz (9-16/PES-00408). Landa Garapeneko kontseilariak ohore du hari igortzea Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak prestatutako erantzuna.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko abenduaren 30ean

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Telekomunikazio zerbitzuak, zeinen artean baitaude 3G edo 4G bezalako teknologiak erabiltzen dituzten mugikortasun-zerbitzuak, merkatuko jarduera ekonomikotzat jotzen ditu araudiak, eta lehiakortasun-arauen pean daude. Beste jarduera batzuekin gertatzen den bezalaxe, enpresak dira —kasu honetan, telekomunikazioko operatzaileak— beren errentagarritasunen arabera inbertsioak zehaztu eta haiek lehenesten dituztenak.

Nafarroako Gobernuaren arabera lurraldeko gaur egungo estaldura hobetu egin daiteke, zeren eta operatzaileek ez baitituzte beharrezko diren inbertsioak egin nahi haientzat errentagarritasun gutxikoak diren tokietan. Operatzaileek interes ezaren arrazoi nagusiak Nafarroako orografia eta biztanle-guneak lurralde osoan barna oso barreiatuta egotea.

Ildo horretatik, Nafarroako Gobernuak ekimena hartu du eta berriki banda zabalaren plan zuzendaria (BZPZ) aurkeztu du. Plan horrek, bere helburuen artean, merkatuak gehien kaltetutako eremuen konektibitate-zerbitzuak hobetzea lortu nahi du, eta ez da zorrotz mugatzen aire bidezko konexioetara, nola baita 4G teknologiarena, baizik eta lurralde horietara zuntz optikoa bezalako beste teknologia batzuk eraman daitezen sustatuz.

Iruñean, 2016ko abenduaren 29an.

Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren zuzendari nagusia: Mikel Sagüés García



## **Galdera, Elerebro S.A.k kudeatzen duen Castejongo zentral termikoaren bigarren multzoari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Elerebro S.A.k kudeatzen duen Castejongo zentral termikoaren bigarren multzoari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren 12ko 148. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak ondoren azaltzen den galderari idatziz erantzuteko eskatu du (9-16-/PES-00409), eta ondotik dator Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioaren kontseilariaren erantzuna. Honako hauei buruzko informazioa eskatuta da: Oraintsu, 2016ko urriaren 18an, Auzitegi Gorenak epai bat eman du, zeinaren bidez ezetsi baitu Madrilgo Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2013ko maiatzaren 13ko epaiaren aurka jarritako kasazio-errekurtsoa. Epai haren bidez, onetsi egin zen Energia Politikako eta Meatzetako Zuzendaritza Nagusiaren 2005eko azaroaren 25eko Ebazpenaren aurka jarritako errekurtsoa. Ebazpen haren bidez, berriz, Eléctrica de la Ribera del Ebro S.A.k (ELEREBRO SA) merkataritza-sozietateari baimena eman zitzaion Castejongo ziklo konbinatuko zentral termikoan bigarren multzo bat paratzeko.

Aldez aurretiko gogoetak:

1.- Galderak zenbait gai aipatzen ditu adierazitako instalazioari buruz eta Auzitegi Gorenak 2016ko urriaren 18an emandako epaiari buruz, zeinean ezesten baitu Madrilgo Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 2013ko maiatzaren 13ko epaiaren aurka aurkeztutako kasazio-errekurtsoa; izan ere, Madrilgo Auzitegi Nagusiaren epaiak baietsia zuen Energia Politikako eta Meatzetako Zuzendaritza Nagusiaren 2005eko azaroaren 25eko ebazpenaren aurka aurkeztutako errekurtsoa, zeinak baimena eman baitzion ELEREBRO SAr Castejongo ziklo konbinatuko zentral termikoan bigarren multzo bat paratzeko.

2.- Zentral termiko horren egoerari dagokionez, haren egungo egoera juridikoa aztertu beharra dago hirigintzako, ingurumeneko eta, azkenik, sistema elektronikoarekin lotutako izapideei dagokionez.

### **I. INGURUMENEN ETA HIRIGINTZAKO IZAPIDEAK**

#### **1. UDALEZ GAINDIKO PLAN SEKTORIALA**

Nafarroako Gobernuaren 2002ko uztailaren 3ko erabakiaz, Castejongo Ziklo Konbinatuko Zentral Termikoa –Hidroeléctrica del Cantábricok sustatua– eraikitzeke udalez gaindiko plan sektoriala onetsi zen. Zentraleko 1. multzoari buruzkoa zen eta instalazioen balizko zabaltze baterako aukera edo etorkizunean bigarren unitate bat jartzeko aukera jasotzen zuen.

Nafarroako Gobernuaren 2005eko azaroaren 7ko erabakiaz, 2. multzoari buruzko bigarren udalez gaindiko plan sektoriala onetsi zen. Udalez gaindiko plan sektorial hori Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren ekainaren 12ko 304/2008 Epaiaren bidez deuseztatu zen, Zuzenbidearen aurkakoa izateagatik; zehazki, 2414/1961 Dekretuaz onetsitako Jarduera Gogaikarri, Kaltegarri, Osasungaitz eta Arriskuetsuen Erregelamenduan ezarritako gutxieneko distantzia ez betetzeagatik. Epai horren aurkako kasazio-errekurtsoa aurkeztu zuten Nafarroako Gobernuak eta ELEREBRO SAK, baina Auzitegi Gorenak,

2011ko azaroaren 31ko epaiak, ezetsi zeregin zuen kasazio-errekurtso hori.

Airearen Kalitateari eta Atmosfera Babesteari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legeak, 2007ko azaroaren 17an indarra hartu zuenetik, indarrak gabe utzi zuen Jarduera Gogaikarri, Kaltegarri, Osasungaitz eta Arriskuetsuen Erregelamendua, eta azken horretan ezarritako gutxieneko distantziak betetzera behartzeko betebeharra kendu zuen.

2009ko uztailaren 31n, ELEREBROk berriz ere eskatu zuen aipatutako 2. multzoaren udalez gaindiko plan sektoriala onesteko, eta “Castejongo ziklo konbinatuko zentral termikoaren 3. multzoa” izena eman zion. Udalez gaindiko plan sektorial hori Nafarroako Gobernuaren 2011ko urtarrilaren

10eko Erabakiaz onetsi zen. Udalez gaindiko plan hori indarrean dago gaur egun.

## 2. INGURUMEN BAIMEN INTEGRATUA.

Ingurumeneko, Lurraldearen Antolamenduko eta Etxebizitzako kontseilariaren irailaren 12ko 512/2005 Foru Aginduaren bitartez, ingurumen jarduera integraturako baimena eman zitzaion, 800 MW-ko ziklo konbinatuko zentral batean energia elektrikoa ekoizteko jarduera bat ezartzeko. 400 MW-ko bi multzo izanen zituen, eta ELEREBRO SAK sustatuko zuen Castejongo udal barrutian.

Foru agindu hori, zenbait gorabehera judizialen ondoren, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren 2014ko otsailaren 10eko epaiatz deuseztatu zen (aurrez, auzitegi berak 2007ko abenduaren 4ko epaia emana zuen, zeina Auzitegi gorenak deuseztatu baitzuen 2011ko azaroaren 23ko epaiatz; izan ere, epai horretan jarduketak lehengora ekartzeko agindu zuen). Aipatutako foru aginduaren deuseztasuna agindu zen Jarduera Gogaikarri, Kaltegarri, Osasungaitz eta Arriskutsuen Erregelamenduan ezarritako gutxieneko distantzia ez betetzeagatik. Deuseztatzea 2014an gertatzea ez da oztopoa haren eraginak aipatutako 512/2005 Foru Agindura mugatzeko, epaiak berak ezartzen duen bezala.

Ingurumenaren eta Uraren zuzendariaren otsailaren 22ko 298/2011 Ebazpenak ingurumen baimen integratu berria eman zuen Castejongo udal mugapean 800 MW-eko ziklo konbinatuko zentral termiko batean energia elektrikoa ekoizteko instalaziorako. ELEREBRO SAK sustatu zuen hori Castejongo udal barrutian. Ingurumenaren eta Uraren zuzendariaren maiatzaren 17ko 814/2011 Ebazpenaren bitartez, instalazioa irekitzeko baimena eman zen. Bi baimen horiek indarrean daude gaur egun.

## II. IZAPIDE ELEKTRIKOAK

Elektrizitateari buruzko araudian ezarritakoarekin bat, Estatuko Administrazio Orokorri dagokio energia elektrikoa ekoizteko instalazioak baimentzea, instalatutako energia elektrikoa 50 MW elektrotik gorakoa denean. Horrelaxe ezartzen du Sektore Elektroari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Lege indardunak 3.13.a) artikuluan, eta horrelaxe ezartzen zuen, halaber, Sektore Elektroari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeak 3.2.a) artikuluan.

Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiaren 2005eko azaroaren 25eko Ebazpenaren bidez baimena eman zitzaion ELEREBRO SAr

Castejongo ziklo konbinatuko zentral termikoan bigarren multzo bat instalatzeko.

Ebazpen hori Madrilgo Auzitegi Nagusiaren 2013ko maiatzaren 13ko epaiak deuseztatu zuen, 2008an aurkeztutako errekurtsio baten ondorioz, Jarduera Gogaikarri, Kaltegarri, Osasungaitz eta Arriskutsuen Erregelamenduan ezarritako gutxieneko distantzia ez betetzeagatik. Epai horren aurkako kasazio-errekurtsioa, berriz, Auzitegi Gorenaren 2016ko urriaren 18ko epaiatz ezetsi zen.

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago ezen deuseztatze horrek ez duela eragin praktikorik deuseztatutako ebazpena Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiaren 2012ko irailaren 20ko Ebazpenak baliozkotu baitzuen (2012ko azaroaren 17ko 277. EAOn argitaratu zen).

ELEREBRO SAK Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiari 2012ko otsailaren 2an eskatu zion 2005eko azaroaren 25eko Ebazpena baliozkotu zezan. Zuzendaritza Nagusi horrek, zentralak ingurumen baimen integratu berria zuenez,

298/2011 Ebazpenaren indarrez, eta, halaber, 814/2011 Ebazpenaz emandako irekitzeko baimena zuenez, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioak indarrean jarraitzen zuenez eta Jarduera Gogaikarri, Kaltegarri, Osasungaitz eta Arriskutsuen Erregelamendua Airearen Kalitateari eta Atmosferaren Babesari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legeak indargabetuta zegoenez, baliozkotze hori eman zuen aurreko lerokadan aipatutako irailaren 20ko Ebazpenaren bitartez.

3.- Honako hauek dira egin diren galdera zehatzak eta haietarako erantzuna:

- Nafarroako Gobernuaren ustez, zentral termikoko multzo horrek ez dauka sektore elektroari buruzko legediak horrelako instalazioen funtzionamendurako eskatzen duen baimena?

ERANTZUNA: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokionean,

ELEREBRO SA enpresak Castejonen duen ziklo konbinatuko zentralaren bigarren multzoak (Castejón 3) badu udalez gaindiko plan sektoriala, 2011ko urtarrilaren 10ean Nafarroako Gobernuaren Erabakiaz onetsia. Halaber, aginduzkoak diren ingurumen baimen integratua eta irekitzeko baimena badauzka, Ingurumenaren eta uraren zuzendari nagusiaren otsailaren 22ko 298/2011 Ebazpenaz eta maiatzaren 17ko 814/2011 Ebazpenaz emanak.

Halaber, zentralak aginduzkoa den funtzionamendu baimena badauka, Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiak 2012ko irailaren 20ko Ebazpenaz emana; izan ere, azken

horren bidez baliozkotzen da 2005eko azaroaren 25eko Ebazpena, zeinak baimena ematen baitzion Eléctrica de la Ribera del Ebro Sari Castejongo (Nafarroa) ziklo konbinatuko zentral termikoan bigarren multzo bat instalatzeko.

Nafarroako Gobernuaren ustez, instalazioari energia elektrikoa ekoizteko aginduzkoa eta lehen-tasunezkoa den baimena falta al zaio?

ERANTZUNA: Gaur egun, Castejongo instalazioak badauzka funtzionamendurako aginduzkoak diren baimen guztiak. (Energia Politikako eta Meatzetako Zuzendaritza Nagusiaren 2012ko irailaren 20ko baimenena, 2012ko azaroaren 17ko EAO n argitaratua).

Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak dagokion administrazio-eremuan, egoera hori zuzentzeko?

ERANTZUNA: Gure ustez, ez da gertatzen aipatutako legez kontraktasuneko egoera; horrenbestez, ez da bidezkoa inongo neurririk hartzea.

Uste al du Nafarroako Gobernuak baimen substantiborik ez dagoenez deuseza izanen litzatekeela aginduzkoa den ingurumen baimena?

ERANTZUNA: Aipatu den bezala, instalazioak funtzionamendurako baimena dauka, organo eskudunak emana, hau da, Energia Politikako eta Meatzetako Zuzendaritza Nagusiak 2012ko iraila-

ren 20an emana, zeina 2015eko azaroaren 25ean baliozkotu baitzen; horrenbestez, baimen substantiboa badu eta, aurrez aipatu den bezala, aginduzkoa den udalez gaindiko eraginari buruzko proiektu sektoriala ere badu, Nafarroako Gobernuak 2011ko urtarrilaren 10ean onetsia. Hartan, izan ere, jasota dago Estatuko Klima Aldaketarako Idazkaritzak ingurumen-inpaktuaren adierazpena guztiz indarrean zegoela informatu zuela.

Hori guztia kontuan hartuta, Nafarroako Gobernuak itxi egingen al du Castejongo zentralaren bigarren multzoa?

Uste al du Gobernuak Nafarroan izapidetu diren baimenetarako erabateko baldintza dela aginduzkoa den baimen substantiboa eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena lortzea?

Horrela baldin bada, Nafarroako Gobernuak zer urrats egingen ditu bigarren multzo hori ixteko?

ERANTZUNA: Tokiz kanpokoa da, aurrez azalduetakoa dela eta.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 10ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

## **Galdera, Benjamín de Tudela institutura joaten diren ikasleen garraio-zerbitzuari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Benjamín de Tudela institutura joaten diren ikasleen garraio-zerbitzuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren 12ko 148. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (9-16/PES-00410). Hona hari erantzuteko Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak ematen dion informazioa:

Foru parlamentariak informazioa eskatu du Erriberako hainbat herritatik Benjamín de Tudela BHLra joaten diren ikasleek aurten izaten ari diren garraio-arazoei buruz. Horri erantzuteko esan

beharra dago azaroaren 24an 12 minutuko a-  
tzerapena izan zela eredu elebiduneko ikasleak  
Valle del Ebro BHItik Benjamín de Tudela BHIra  
eramateko autobusean, hain zuzen ere Arasa  
enpresak kudeatutakoan, “giza akats” batengatik.  
Horrelaxe aitortu zuen enpresak Hezkuntza  
Departamentuari igorritako jakinarazpenean.  
Horrek eragin zuen ikasle batzuek erabakitzea  
autobusa iritsi arte itxarotea —autobusak, azkene-  
an, beste ibilbide bati ekin zion— eta beste ikasle  
batzuk, ordea, oinez joatea Benjamín de Tudela  
BHIra.

Benjamín de Tudela BHIak aitortu du egun har-  
tatik beste inolako gorabeherarik ez dela izan  
aipatutako ibilbidean.

Nolanahi ere, ikastetxeen, Hezkuntza Departa-  
mentuaren eta garraio-enpresen artean antzeko  
egoeratarako protokolo bat adostu da, autobusen  
bat atzeratzekotan ikasleentzako konponbidea,  
daitezkeen berme onenekin, jarri ahal izateko,  
ikasleak ordu-orduan irits daitezzen Benjamín de  
Tudela BHIra.

Iruñean, 2016ko abenduaren 29an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza  
Peña

## Galdera, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Legearen garapen planari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artiku-  
luan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako  
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin  
Ana San Martín Aniz andreak egindako galdera-  
ren erantzuna, Foru Diputazioak emana, emaku-  
meen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren  
10eko 14/2015 Legearen garapen planari buruz-  
koa. Galdera argitaratu zen 2016ko abenduaren  
12ko 148. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofi-  
zian.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari  
atxikitako foru parlamentari Ana San Martín andre-  
ak idatzizko galdera egin du apirilaren 10eko  
14/2015 Foru Legea garatzeko planera bideratuta-  
ko aurrekontuari buruz (9-16/PES-00411). Hauxe  
da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko  
Harremanetarako kontseilariak ematen dion infor-  
mazioa:

Nafarroan Emakumeen Kontrako Indarkeriari  
Aurre Egiteko 14/2015 Foru Legearen Ekitza Pla-  
nak, 9. puntuan, exekuziorako honako aurrekontu-  
aurreikuspena jaso du, hurrengo taulan adierazi  
bezala.

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
<b>I. ARDATZ ESTRATEGIKOA:</b> BALORE-ALDAKETA ETA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERARIK GABEKO BIZITZA BAT SORTZEA	441.483,90	386.000,00	401.000,00	384.300,00	384.000,00	384.000,00
<b>II. ARDATZ ESTRATEGIKOA:</b> GENEROKO INDARKERIAK KALTETUTAKO EMAKUMEENTZAKO ARRETA INTEGRALA	3.106.989,00	3.188.900,00	3.202.400,00	3.260.400,00	3.262.900,00	3.297.900,00
<b>III. ARDATZ ESTRATEGIKOA:</b> PROFESIONALEI PRESTAKUNTZA EMATEA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI AURRE EGITEKO EMAKUMEEN AHALDUNTZERAKO LAGUNTZA EMANEZ	134.090,00	127.500,00	129.500,00	136.500,00	138.500,00	136.500,00
<b>IV. ARDATZ ESTRATEGIKOA:</b> FORU LEGEAN AURREIKUSITAKO ARLOETAN ESKUMENAK DITUZTEN ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA 14/2015	13.400,00	11.400,00	11.400,00	11.400,00	11.400,00	11.400,00
<b>Guztira</b>	<b>3.695.962,90</b>	<b>3.713.800,00</b>	<b>3.744.300,00</b>	<b>3.792.600,00</b>	<b>3.796.800,00</b>	<b>3.829.800,00</b>

Ekintza planak dauzkan lau ardatz estrategikoen inguruan xehakaturik dago, 14/2015 Foru Legearen artikuluekin eta kapituluekin bat. Planaren exekuzioaren urteetan zehar, 2016tik 2021era, zenbatekoak zehazten dira, eta aldeak eta aurrekontuaren igoera jasotzen dira 22.573.262,90 euroko kopururaino.

Bestetik, 2016ko eta 2017ko aurrekontuei dago-kienez, hurrengo taula gehitu dugu, non arloan eskumenak dituzten Nafarroako Gobernuko departamentu desberdinetarako zenbateko ekonomikoak jasotzen baitira, kontuan hartuta emakumeen kontrako indarkeriaren arloan esku-hartze publikoa zein ardatz estrategikoren bitartez gauzatzen den.

	HERRITARREKIKO									
	ESKUBIDE SOZIALAK		OSASUNA		ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK		HEZKUNTZA		LEHEN. FUNTZ. PUB. BARNE ETZ.	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017
I. ARDATZA	25.000,00	17.000,00	0,00	5.000,00	396.213,90	336.000,00	19.970,00	28.000,00	300,00	0,00
II ardatza	811.589,00	854.000,00	0,00	47.500,00	1.381.000,00	1.432.000,00	0,00	0,00	914.400,00	855.400,00
III. ARDATZA	74.000,00	72.000,00	0,00	6.000,00	42.000,00	34.000,00	0,00	0,00	18.090,00	15.500,00
IV. ARDATZA	0,00	0,00	0,00	0,00	13.000,00	11.000,00	0,00	0,00	400,00	400,00
	<b>910.589,00</b>	<b>943.000,00</b>	<b>0,00</b>	<b>58.500,00</b>	<b>1.832.213,90</b>	<b>1.813.000,00</b>	<b>19.970,00</b>	<b>28.000,00</b>	<b>933.190,00</b>	<b>871.300,00</b>

Azkenik Nafarroako Berdintasunaren Institutuaren 2016rako eta 2017rako aurrekontu orokorreari dagozkien kontu-sailak jaso ditugu, kontuan hartuta 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak onetsi berri direla (1. eranskina).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 3an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

## **Galdera, Castejonen hilda aurkitutako pertsonari buruzko ikerketa Guardia Zibilari bideratzeko arrazoiei buruzkoa.**

### **GALDERA ERRETIRATZEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko galdera erretiratu duela. Galdera Castejonen hilda aurkitutako pertsonari buruzko ikerketa Guardia Zibi-

lari bideratzeko arrazoiei buruzkoa zen, eta 2016ko azaroaren 18ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

